



OROZKOKO UDALA

PRENTSA OHARRA

Jaiak bertan behera uztea erabaki dute Antolinzaleek eta Udalak

- ***Irailean zehar, hainbat kultura-jarduera antolatuko dira, agintariek ezarritako osasun-protokoloak bermatuta.***

Orozkon, 2021eko ekainaren 24an.- Antolinzaleak jai batzordeak eta Orozkoko Udalak 2021eko sanantolinak bertan behera uztea erabaki dute Covid-19ko pandemia dela eta.

Irailean zehar, hainbat kultura-jarduera antolatuko dira, agintariek ezarritako osasun-protokoloak bermatuta.

Jaiei buruz zein osasun-egoerara egokitutako ekitaldiren antolaketari buruz egindako bileretan hartu da erabakia.